

221/2013 Ebazpena, ekainaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 2 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzen da, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediko eta Teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (2011ko ekainaren 6ko EHAA, 106. Zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, osatu eta kudeatzea arautzen da.


Martxoaren 20eko 121/2013 Ebazpenaren bidez, 2 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediko eta Teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediko eta Teknikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakia, 2013ko ekainaren 7an 2009ko urriaren 6koa (EHAA: 225 zb, azaroaren 23koa) Acuerdo del consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de 6 de octubre de 2009 (B.O.P.V.: nº 225, de 23 de noviembre)
Iz.: José María Armentia Macazaga

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA.